

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko apirilaren 15eko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

— Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

202/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak zenbait entitatetan duen ordezkaritza berritzeari.

203/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Ez egitea deirik Foru Gobernu Kontseiluaren 2025eko apirilaren 22ko ohiko bilkurarako.

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

204/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakian hautemandako akats bat zuzentzeari.

205/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko lanpostuen zerrenda aldatzeari.

206/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Kontratazioen Zentralari orokorrean atxikitzeko hitzarmenei.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

207/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari Arabako Lurralde Historikoko udalei ordain diezaien Telefónica de España SAK eta Euskaltel SAK sartutako diru kopuruak, 2025eko ekitaldiko tokiko tributuen ordain moduan.

208/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpeko egoitza harrerako baliabide bat hartuko duen higiezinaren errentamendu kontratu bat adjudikatzeari.

209/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontu aldaketarako hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "NGEU Gebarako dorrea: zaharberrikuntza" partida, 2026. urtean, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

210/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena sinatzeari, Vitoria-Gasteizko Udalak suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko 2025eko zerbitzua emateko egin beharreko jarduketak arautzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

211/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea ikus-entzunezko industria sustatzearen eremuan garatzen diren jardueren hedapen estrategiko eta operatiboa zabaltzeko laguntza zerbitzua emateko prozedura ireki bidezko kontratazio espedienteari. Aurrekontua 133.100,00 eurokoa da, BEZa barne, eta 2 urteko epea dago gauzatzeko.

212/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea ikus-entzunezkoak sortzeko 2025eko dirulaguntza lerroen deialdiari.

213/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan biohondakinen bilketa eta kudeaketa sustatzeko 2025 eta 2026rako dirulaguntza lerroaren deialdiari.

214/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Parke Naturalen HTJPren esparruan Egilolarra zidorra itxuraberritzeko obren prozedura ireki bidezko kontratazio espedienteari, 208.954,66 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta hiru hilabeteko gauzatze epearekin, Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU funtsekin finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

215/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea taimaina handiko gauzak kudeatu, konpondu eta berrerrabiltzeko Arabako zentroa eraikitzeko obrak prozedura irekiaren bidez kontratatze espedienteari, 6.815.021,65 euroko zenbatekoan, BEZa barne, eta hamaika hilabete eta bi asteko gauzatze epearekin, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGenerationEU).

GIZARTE POLITIKEN SAILA

216/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Indesa 2010 SL sozietatearen 10 partaidetza Amurrioko Udalari besterentzeari.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

217/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Urduñako hornidura sarearekin lotzeko eta Delikan biltegi berria egiteko eraikuntza proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioaren erantzunari, proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, bai eta lehenbailehen okupatu behar izatearen adierazpenari ere.

218/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea auzo sareko A-4207 errepide zatiaren jabari publikoko aldaketa subjektiboari, 66+249 KParen eta 66+440 KParen artean, Guardiako Udalaren alde.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

219/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Valderejoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzeari.

220/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarreko kide kudeatzailea izendatzeari.

221/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea 2016-2017, 2018-2019 eta 2020-2021 aldietarako Obra eta Zerbitzuen Foru Planari atxikitako zenbait obra amaitzeko epea luzatzea.

NEKAZARITZA SAILA

222/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko ibai eta urtegietan aprobetxamendu piszikola eta astazikolaren plan-gintza eta kudeaketarako eta ibai eta urtegi horietako arrantza zaintzarako laguntza teknikoko kontratua luzatzeari.

223/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 17ko 772/2024 Erabakiaren bidez onetsitako 2025eko ekitaldirako landa bideetarako laguntza lerroaren ebazpenari.

224/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baiespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 822/2024 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoari (Esp.: ADM1 2024 528).

KULTURA ETA KIROL SAILA

225/2025 Erabakia, apirilaren 15ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 16ko 434/2024 Erabakiari dagokionez aurkeztutako justifikazio dokumentazioari.